



Esp. kodea: 2014SMOZ0007

Gaia: Adierazpen Instituzionala, indarkeria  
matxistaren ingurukoa

## ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

BILDU, EAJ-PNV, PSE-EE eta ARALAR udal taldeetako bozaramaileek, 2014ko martxoaren 19ko dataz, honako adierazpen instituzionala onartzea erabaki dute:

### “INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Joan zen astelehenean, martxoak 17, emakume bat hilda agertu zen Mungian (Bizkaia). Andina Pereira de Britok 35 urte zituen eta bere erailketa ez da hilketa isolatu bat izan. Egungo jendaratean bizi ditugun sexuen arteko botere harremanen ondorio zuzena da.

Indarkeriak patriarkatuaren tresna nagusi izaten jarraitzen du emakumea nahi duen tokian kokatzen jarraitzeko. Erailketa hau da horren adibide gordina eta indarkeria horri aurre egiteko, ezinbestean, politika eraginkorrek behar ditugu, arlo guztiak hartuko dituen. Zer esanik ez, halako indarkeria kasu bortitzen aurrean beharrezkoa da kalean erantzun irmo bat ematea.

Udal honetan ez dugu onartzen, ez dugu toleratzen emakumeen eskubideak bortxatzen dituen indarkeria sexistaren inolako adierazpenik ezta inolako jarrera sexistarik ere (sexuaren araberako rol estereotipatuak; neska eta emakumeen ikusezintasuna bizitzako hainbat arlotan, bigarren mailara zokoratuz; sexu eta ugalketa eskubideen ezeztapena; edota pertsonetikiko diskriminazioa euren sexu-augeraren edo genero identitatearen ondorioz). Eta horiei guztiei aurre egiteko, argi dago, oraindik lan asko dugu egiteko.

Belaunaldi gaztegoen artean emakume nahiz gizonen arteko desberdintasunak eta emakumeenganako indarkeria gailenduta daudelako mitoa baino haratago, errealitateak erakusten digu gazteen artean dagoen indarkeria matxista, baita adinez txikikoen artekoa ere, benetan kezagarria dela.

Horregatik, Udal honetan emakumeen aurkako biolentziarekiko hartuko dugun jarrera, bikote edo bikote ohi eremuan ematen den biolentziatik haratagokoa izango da. Gertatzen diren erasoen aurrean eta gertatzen diren eskubideen murrizketen aurrean, zera diogu:

- Bikote edo bikote ohi eremuan ematen diren etengabeko tratatu txar fisiko eta psikologiko adierazpenak **SALATZEN DITUGU**. Emakume izate hutsagatik kolpe, jipoi eta heriotzak gertatzea onartezina da.
- Hainbat ordezkari politiko, agente sozial, judizial eta komunikabideren aldetik egindako adierazpenak **SALATZEN DITUGU**, emakumeak herritar tutelatu gisa eta norbere bizitzaz erabakitze ahalmenik gabe kokatzen direlako.

Ezinbestekoa da ulertzea ezin daitekeela emakumeenganako indarkeriaren kontra borroka egin, gizonezkoen eta emakumezkoen ereduak sakon eraldatu gabe, ez eta gizonezkoen eta emakumezkoen arteko harreman afektibo eta sexualak eraikitze modua aldatu gabe ere.



---

Esp. kodea: 2014SMOZ0007

**Gaia:** Adierazpen Instituzionala, indarkeria  
matxistaren ingurukoa

---

Horregatik guztiagatik, Udal honek, emakume eta gizonezkoen arteko berdintasuna oinarri izango dituen beste eredu sozial baten eraikuntzan aurrera egiteko konpromisoa hartzen du. Bide hau urratuko du, mugimendu feministari entzunez eta berarekin parte hartuz, norabide honetan egindako ibilbideagatik eta helburu hori lortzeko duen lidergo historikoagatik.

Erakundeetatik eta, erakunde hurbilenetik, Udaletik, indarkeria matxistaren kontrako ardura soziala eta politikoa gure gain hartu behar dugu, eta, horretarako, norberaren aurreiritziak, rolak eta eguneroko jarrerak berrikusi beharko ditugu. Norberak erantzukizun horiek bere gain hartuz gero, aldaketarako konpromisoa lortuko da.

#### **Horregatik guztiagatik, Arrasateko Udalak:**

- **KONPROMISOA HARTZEN DU**, bere eskumenen esparruan eta indarreko legeria aplikatuz, emakumeenganako indarkeriaren aurkako udal politika aktibo, osoa eta koordinatua garatzeko.
- **KONPROMISOA HARTZEN DU**, autodefentsa feministaren beharra transmititzeko eta emakumeak animatzeko lanketa berezia egin dezaten, horretarako bitartekoak jarritz.
- **GONBITEA EGITEN DIE** herritar guztiei, konpromiso pertsonalak eta kolektiboak hartzeko, emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasunaren alde, baita edozein indarkeria edo diskriminazio sexista gaitzesteko ere. “

Arrasaten, 2014ko martxoaren 19an.